



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, NAVARIDASKO UDALAREN 2001-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Navaridasko Udalaren 2001eko urtealdiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Udalak legezkontasuna betetzeari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespenen bat edo beste egin duela: administrari laguntzaile baten aldi bateko kontrataziorako Arabako Errioxako udalerrietara publizitatea mugatu izana; onartutako lanpostuen zerrendan datu eza (dedikazio erregimena, hornidura sistema eta esleitutako berriazko osagarria); eta hornidura, obra eta laguntza teknikoetarako hiru kontratutan ez betetzeak (horietako bat aurrekontu izendapen ezagatik eta beste bi, publizitatea eta lehia behar ez bezala mugatzeagatik).

Kontuei dagokienez, txostenak ondasun zerrenda eza erakusten du eta errore bat dirulaguntzak erregistratzerakoan; iritzia, ordea, positiboa da.

Udalaren finantza egoeran eragina dute, HKEEren arabera, tamaina bereko udalen aldean honek dituen sarrera arrunt txikiek eta duen zorpetze handiak.